



# Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2021eko otsaila · 372 alea

25 urte zuekin



# SORAPEDIA HERRIKO HISTORIA SAREKO ENTZIKLOPEDIAN



## PIL-PILEAN 372

2021ko otsaila

### Aurkibidea

- 4 **Elkarrizketa** Markel Albisua
  - 6 **Begira** Zein zara?
  - 8 **Zer berri** Aktualitateko albisteak.
  - 14 **Argazki bidez** Umeen belarri tirakada.
  - 18 **Erreportajea** Sorapedia. Soraluzeko entziklopedia digitala.
  - 24 **Plazan bazan** Umeendako jolasak.
  - 26 **Kirola** Jose Mari Gomez hil da; pilota eskola bueltan da.
  - 27 **Kultura** Musika.
  - 28 **25 urte zurekin** Otsaileko efemerideak.
  - 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...
- IRITZIA
  - 3 **Neuretik** Ane Ugalde *Nostalgia, ardura.*
  - 16 **Gutunak** Jose Mari Gomezen anai-arrebak *Eskerrik asko!*
  - 16 **Hausnarketa** Zuhaitzekin harremana.
  - 17 **Haxe bai jeneroa!** Garbiñe Ubeda.
  - 17 **Puntua** Nikolas Morillo *Nagusien elkartearen hobe.*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Uhamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**

**GOKI**  
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko  
UDALA**

# Nostalgia, ardura



ANE UGALDE IÑURRIETA

**A**zkenaldian, Plazentziatik irtetea mugatuta dugula eta, denbora gehiago egin dut auzoan, Txurrukenen. Aurrekoan, esaterako, nire txikiekin Txurruken hasierako parkera joan nintzen. Umeak txirristan eta iturri inguruan zebiltzan bitartean, ingurura begiratu eta nire haurtzaroko momentuak etorri zitzaizkidan burura. Txurrukenekoa naiz, betidanik izan naiz, eta nire haurtzaroko momentu on asko bizi izan ditut bertan.

Lehenengo oroitzapenek erre kara eraman ninduten. Han ibiltzen ginen paitxeri jaten ematen edota harriak botatzen, ura jo eta botea egin zezaten, salto egingo balute bezala. Aspertzen ginenean, Kelenek loreak zituen ingurutik gora igo eta berriz ere Txurrukenera joaten ginen. Auzoa bizirik zegoen eta libre ibiltzen ginen; orain konturatzen naiz auzoak nolako babes eskaintzen zigun.

Oraindik gogoan ditut auzoko andrekin egiten zituzten barreak numero kuartuan kartetan aritzen zirenean. Hantxe esertzen ziren Ascen, Teresa eta kuadrilla, kanpineko mahai baten inguruan, etxetik jaitsitako eserlekuekin.

Eta ezin ahaztu bertako puntu neuralgikoa, Araceliren denda, "Korea". Gogoratzen dut sartu eta ate ostean zegoen botileroa, koka kola, kas eta gaseosa botilekin. Erositako botila hustu ostean, berau bueltatu behar zenuen. Tamalez hain galduta dugun gestio baten oroitzapena: kaskoen berrerabilera.

Parkean pasatako arratsalde hark, hausnarketa nostalgiko bat eragin zidan. Atzera begiratu eta konturatzen naiz herria eta auzoak aldatu egin direla, baita pertsonak eta harremantzeko moduak ere. Baina umea ume zen lehen eta baita orain ere, bere inguruarekiko interakzio etengabe dagoen indibidua, dena jasotzen eta ereduak imitatzen ari dena. Horren garrantziaz jabetuta, ez da makala helduok aurretik dugun ardura. Atera dezagun bada Plazentzia azken urteetan sufritzen ari den gainbehera honetatik eta eman diezaiegun gure txikiei beraien haurtzaroa eraikitzekeo testuinguru egoki bat, auzo atsegina bat, herri bizi eta kohesionatu bat. Nagusitzen direnean beraien haurtzaroaz gogoratu eta niri orain ateratzen zaidan moduko irribarre txikia izan dezaten aurpegian.

**ATERA DEZAGUN  
PLAZENTZIA AZKEN  
URTEETAN SUFRITZEN  
ARI DEN GAINBEHERA  
HONETATIK**

# “Itsasoan egoteak asko lasaitzen nau”

MARKEL ALBISUA SURFZALE AMORRATUA

---

**TESTUA** EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIA: ARROBA ERNESSON (DEBA)

---

Markel Albisua surfzale amorratua da eta ahal duen guztietan joaten da itsasora, itsasoak lasaitasuna ematen diolako. Pandemiaren aurretik, munduan zeharreko bidaia hasi zuen, Asia eta Hego Amerikan barrena, bertako olatuak probatu asmoz. Baina COVID-19a iritsi eta etxera bueltatu behar izan zuen. Harrezkero, are gehiago estimatzen du Debako Sorginetzeko olatua.

## **Zer dauka surfak hainbeste engantxatzeko?**

Mendira zoazenean naturarekin harreman estua sentitzen duzun bezala, itsasoan ere berdin gertatzen da. Lasaitasun puntu bat lortzen duzu, adrenalina, euforia... Dena batera. Itsasoan egoteak asko lasaitzen nau eta nire eguneroko bizitzarako ondo datorkidan zerbait da. Ni nahiko urduria naiz eta asko laguntzen dit. Eibartar, algoibartar, debarrez eta plazentziarrez osatutako talde bat daukagu eta elkarrekin joaten gara surfera. Nora joan erabakitzen dugu, uretan batac besteari laguntzen diogu, olatu onen bila joaten gara... Eta uretatik kanpo ere gelditzen gara.

**Azken urteotan badago boom moduko bat.** Bai, komunikabideetan bonbo asko eman zaio; lehen surfa egiten zutenek jarraitzen dutelako eta berriak datozelako ere izan daiteke. Surf eskolak ere ugartu egin dira eta urtero jende gehiagok iaksten du. 60 urtekoak surf egiten jarraitzen dute eta gazteak ere sartzen doazela ikusten da. Gaur egun Debara zoaz eta hamabi urteko mutil bat eskolara joan aurretik uretan dagoela ikusten duzu. Hamabi urtetik berrogeita hamarrera pentsa zenbat jende dabilen.

**Zu noiz hasi zinen surfean?** Hamabi urterekin edo hasi nintzen surfean. Kirol asko probatu ditut, baina surfa da benetan engantxatu nauena. Bizitza osoan udako oporrak Zarautzen pasatu izan ditugu eta txikitan asko ibiltzen ginen bodyboardean. Gero ikastaro bat egin nuen Zarauzko surf eskolan Gallorekin, orain munduko txapelketa irabazi duen surflariarekin, eta gero ya nire surf taularekin hasi nintzen.

**Zein izan dira zure erreferenteak?** Mundu mailan Kelly Sleiter, John John Flores... Euskal Herri mailan Eneko Acero, Haritz Aranburu...

Gustatzen zait horien bideoak ikustea, asko ikasten da bideoak ikusita: birak zela eman, begirada... Sare sozialetan asko daude. Baina gero eta muturrerago eroaten da dena. Olatu handiagoak, tubo handiagoak, aereo hobeak...

**Zuk leku askotako olatuak ezagutu dituzu.** Bai, Euskal Herriko olatu gehienak probatu ditut eta Kantabrian, Asturiasen, Galizian, Portugalen... ere izan naiz. Landetara ere asko joaten gara olatu oso onak daudelako. Marokora ere joan naiz eta azken urteetan Indonesian, Filipinetan, Nikaragua, Panama eta Costa Rican egon naiz.

**Zein izan da gehiena gustatu zaizuna?** Indonesia. Surfaren paradisua da. Bertako jendea, klima, ur beroa... Olatu oso onak daude, merkea da, gauza asko dago ikusteko... Berriz ere joango nintzateke, bai.

**Gero, pandemia etorri zen eta etxera bueltatu behar izan zenuten.** Bai, 2019ko irailean atera ginen bidaian, munduan zehar urtebete sabatikoa pasatzeko asmoz. Hasteko Asia aldera joan ginen. Lehenengo Malaysiara, gero Indonesiara eta handik Filipinetara. Gabonetan etxera etorri ginen. Urtarrilean Hego Ameriketara joan ginen eta Panaman, Costa Rican eta Nikaraguan aritu nintzen surfean. Gero pandemia etorri zen eta martxoaren amaieran etxera bueltatu ginen.

**Zela daroazu pandemia garaia?** Iaz, martxoaren amaieran bueltatu ginen etxera. Nikaraguan egun eguztitan uretan egotetik bi hilabete etxean egotera igaro nintzen. Golpe handia izan zen. Gero, berriz baimendu zuten momentuan, itsasora bueltatu nintzen. Urrian berriz konfinatu gintuzten herrietan; orduan, abendu amaierara arte, Debako lagun batzuen baserrira bizitzera joatea erabaki nuen. Egia esateko, merezi izan zuen, hilabete horietan sekulako olatuak izan ziren. Orain, suertez, federatuta gaudenok aukera daukagu ohiko hondartzara joateko, gorriz egon ezean. Gure kasuan, Debara.



## Zein zara?

---

**ARGAZKIA:** BITTOR MURGUZUR

**TESTUA:** ARIANNE UNAMUNO

---

Elurrak beherantz bidali zituen txoriak jateko bila, izara zuri baten moduan zuhaitzen eta denaren gainean zabaldu zenean. Motozerren burrundarak eta pinuen enborrek haustean egiten dituzten krakatekoak ere egunero entzuten ditugu, txorien txorrotxioekin nahasean. Ez daukate errez; bateko natura, besteko geu. Baina denon zorionerako, irauten dute, eta gure jakinmina piztu ere bai. "Zer izen ete dauka horrek? Ezagutzen dozu? Ez dot sekula ikusi!". Hain gertu, hain eder eta hain ezezagun. Argazkikoa gailupa edo frutabatzailea da, berez "alderdirik hezeenetan eta garaiera batetik gorako eremuetan" habia egiten duena (txoriak.eus), kaleraino etorritia. Lagunduko diogu etxera itzultzen? Zuhaitzak landatzeko prest?







Landaketa egingo den lursaila.

# Landaketa, martxoaren 7an

Baso Biziak elkarteak martxoaren 7an egingo du bere lehenengo zuhaitz landaketa. Izena emateko epea zabalik dago.

Baso Biziak elkarteak Txurruka auzoan, Azaliatxo baserriaren jabetzako lursail batean, egingo du bere lehen landaketa. Aurretik, Lurgai Fundazioak eta jabeek elkarlanerako hitzarmena sinatu dute. Hitzarmenaren arabera, jabeek datozen 20 urteetan ez dute eremu horretatik egurrik aterako.

### Urkiak, haritzak, elorriak...

Aukeratutako lursailaren hedadura hektarea eta erdikoa da eta pinudia bota ostean berez erne den begetazioa dago bertan. Landaketaren bidez, elkarteak eremu horretan baso mistoa eratzeko prozesua indartu nahi du. Horretarako, hainbat zuhaitz mota sartuko dituzte: urkiak, haritzak, otsalizarrak, oilakarak, elorri zuriak eta madariondoak.

### Izen-ematea zabalik

Baso Biziak elkarteak jakinarazi duenez, landaketa auzolanean egingo dute. Osasun neurriengatik, 16 urtetik gorako soraluzetarrek bakarrik parte hartu ahal izango dute bertan. Hitzordua martxoaren 7an, domekan, goizeko 9:00etan, Txurruka jatetxeko aparkalekuan jarri dute. Bazkal ordura arteko saioa izango da eta izena emateko soraluzekobasobiziak@gmail.com helbidera edo 679121902 zenbakira idatzi behar da, martxoaren 4a baino lehen.

### 100 bazkide

Baso Biziak elkarteak dagoeneko 100 bazkide ditu eta zuzendaritzako asmoa maiatzean elkartea aurkezteko saioa antolatzea da, proposamenak eztabaidatzeko.

## Errigoraren kanpaina

Martxoaren 4tik 24ra bitartean egingo da Errigoraren Udaberriko kanpaina. Honen bidez, herritarrek Nafarroa Hegoaldeko olioia eta kontserbak batera eskuratu ahaliko dituzte. Produktuen katalogoa Errigora.eus webgunean kontsultatu ahal izango da datorren egunetik aurrera. Antolatzaileek eskariak ere webgunearen bitartez egitea gomendatu dute. Soraluzeko kanpaina Pil-pileanek, Iratxok eta Arranoak bideratuko dute eta datozen egunetan kanpainaren gaineko informazioa zabalduko dute, online nahiz paperean. Produktuak apirilaren 23an banatuko dituzte.

## Gerran hildakoen zerrenda

Gogora Memoriaren, Institutuak sarean jarri ditu 1936ko gerran Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hildako 21.000 herritarren datuak. Datu basea kontsultagarri dago eta Soraluzerekin lotutako 45 herritar agertzen dira, herrian jaioetakoak, herrian bizi zirenak edo kanpokoak izan arren herrian hil zirenak.

2015ean, Soraluze 1936 lan taldeak hildako 38 pertsonaren zerrenda argitaratu zuen eta zerrenda hori ez dator guztiz bat Gogora Institutuak argitaratutakoarekin. Hori dela eta, lan taldeko kide batzuek, zerrendak berraztertzeke lanari ekin diote.



# Pandemiak baldintzatutako M8a

Aldarrikapenekin batera, datozen egunotan denetariko ekimenak izango dira Martxoaren 8aren bueltan.

Azken asteotan, batetik, hainbat herritarrez osatutako M8 Plataforma ibili da egunari begira lanean. Bestetik, Soraluzeko Berdintasun Sailak ere umeei, gazteei zein herritarrei zuzendutako ekimenak antolatu ditu.

## Manifestazioa

M8 Plataformaren lanketari dagokionez, egunerako bertarako -astelehena- zein

aurreko egunetarako ekimenak ari dira prestatzen. Martxoaren 8an bertan manifestazioa egingo dute, Plaza Berritik abiatuta, 18:30ean. Koloretsua eta zaratatsua izango da.

Horrez gain, aurreko egunetan ere beste zerbait egiteko asmoa partekatu dute, baina hitzorduak erabat lotzeke daude.

Udaleko Berdintasun Sailari dagokionez, berriz, hilabete osoko egitaraua prestatu du.

## Martxoak 4, eguena, antzokian

- 14:45. Eidaberen *Futbolariak eta printzesak*. Umeendako.
- 19:00. Pelikula: *La boda de Rosa* (Iciar Bollain).

## Martxoak 7, domeka, antzokian, bi kontzertu

- 19:00. Bidane Txopitea (sopranoa) eta Iker Ruiz de Alegría (pianista). Eta Aramu taldea.

## Martxoak 8, Plaza Berrian

- 11:45. Pentsioen aldeko elkarretaratzea
- 18:30. M8 Plataformak antolatutako manifestazioa. Udalak ere bertaratzeko deitu du.

## Martxoak 13, zapatua, antzokian

- 19:00. Vaiven producciones etxearen *El enjambre* antzezlan.

## Martxoak 25 (Gazteei zuzenduta), antzokian

- 09:30. AMA-ALU-LUR (Sorgin baten ametsak).
- 11:30. Hitzaldia. Ama-alu-lur. Bea Server.
- 12:30. Antzokia. Tailerra: *Gure gorputza historiaurrean*. Jesus Tapia.

## Grisera doan %63 birziklagarria da

Debabarreneko Mankomunitateak, ikerketa egin ondoren, jakinarazi du edukiontzi grisetara botatzen ditugun hondakinen %65a birziklagarria dela. Xehetasunei begiratu ezker, %32,6a, adibidez, organikoak dira. Emaizten aurrean, Mankomunitateak "hausnarketa" egitea beharrezko ikusten du.

## Merkatarientzako laguntzak

COVID-19agatik merkatariek egindako inbertsioak ordaintzen laguntzeko bigarren dirulaguntza deialdia egin du Udalak; maiatzaren 10a arteko epea dago eskaerak egiteko. Merkataritza-jarduera duen edozeinek eska dezake laguntza, denda fisikoa izan ala ez, baldin eta EJSN kodea baldin badauka.

## Podologoa behar dute Itxaropenan

Itxaropena Erretiratuen Elkarteko podologoak zerbitzua eskaintzeari lagako dio. Hori dela eta, bertako zuzendaritza beste podologo baten bila dabil. Interesa duenak bi bide ditu elkartearekin harremanetan jartzeko: [itxaropena5@gmail.com](mailto:itxaropena5@gmail.com) helbidera idatzita edo batzordeko kideren bati esanda.

# "Poltsikoa ukitu arte batzuek ez dute erreakzionatzen"

**GOTZON ODRIOZOLA** UDALTZAINBURUA

Udaltzaingoa ahalegin berezia egiten ari da Zubi Nagusiko aparkalekuak duten funtzioa betetzeko erabil daitezen, zamalanetarako

Abenduaz geroztik, Udaltzaingoa Zubi Nagusiko aparkalekuen gaineko zainketa berezia egiten ari da. **Zergatik zubiko zainketa berezia?** Zamalanetarako gunea ibilgailu partikularren aparkaleku bihurtu zela eta kamioiek eta banatzaileek zubian zirkulazioko erraian aparkatu behar izaten zutela ikusita -horrek trafikoari eragiten zion arazoarekin-, partikularrei jakinarazi zitzaizen ezin zela bertan aparkatu, arau-hauste horiek salatzeraz zihoazelako. Astebeteko ohararazpena egin zen. **Emaizta onak lortu dituzuela dirudi.** Oraingoan, ingurua nahiko ondo errespetatzen ari da. Batzuek ibilgailua behar dute joan-etorriak egiteko, horregatik sortu zen TAO gunea, kudeaketa, erosketa edo horrelakoren bat egitera datozen partikularrei mugikortasuna eskaintzeko. Bestalde, Plaza Zaharrean, mandatu, kudeaketa edo erosketa azkarren bat egiteko aparkatzen uzten da; hori bai, beti dago lagatzen den denbora horretaz

abusatzen duen norbait; hori denen kalterako da. **Ohitura batzuk oso errotuta daude, domeketako auto-festa, adibidez...** Udaltzaingoaren zerbitzurik ez dagoenean, Ertzaintza arduratzen da zaintzaz, behar izanez gero. Hala ere, egia da batzuek enpatia gutxi dutela edonon aparkatuz, oinezkoiei eta gainerako erabiltzaileei traba eginez edo bidea eragotziz. Antza, poltsikoa ukitu arte ez dute erreakzionatzen. **Inguruko herrietan berdina gertatzen da?** Inguruko herrietan ere gertatzen da. Heziketa eta errespetu falta handia da. Errazena gainerakoei errua botatzea da. Ibilgailu hori gaizki aparkatuta egotearen erantzule bakarra bertan uzten duena da, bertatik pasatzeko espazio hori behar duten pertsonak egon daitezkeela jakin arren, batere axolarik ez zaion hori. **Beste nonbait ere ari zarete lanketa bera egiten?** Oro har, arau-hauste larriagoak salatzen dira, pertsonak edota



Gotzon Odriozola bulegoan.

ibilgailuak igarotzea oztopatzen dutenak, hala nola espaloiak, oinezkoentzako pasabideak, garaje-irteerak eta pasabideak. **Hainbatek aurpegiratzen dute isunak jartzerakoan ez zaretela beti gogorrak izaten.** Batzuentzat zorrotzak gara salaketa jartzeko orduan; beste batzuentzat, berriz, oso permisiboak gara; zein da egia? Salatua zaren edo ikusle zaren; hori da kontua. **Zenbat aparkaleku dago herrian? Zenbat ibilgailu? Eta zenbat garaje?** Kalean, 1.229 aparkaleku daude. Garajeetan 811 leku daude eta herrian 2.152 ibilgailu daude; batzuk kendu egin beharko lirateke: erabiltzen ez direnak, baja eman gabe daudenak...

**"BATZUENTZAT ZORROTZAK GARA, BESTE BATZUENTZAT, BERRIZ, OSO PERMISIBOAK"**



Marimar Fernandez lokalean.

# Beti berritzen ari dena

Mimar ileapaindegiak etengabe berritzen duena zerbitzu aukera zabala eskaintzen du. Ilea apaintzeko zerbitzuez gain, estetika tratamenduak ere eskaintzen ditu eta oparitarako produktuak ere bai.

Marimar Fernandezek esperientzia zabala du estetika eta ileapainketa munduan, ez dermatza alferrik hogeita bost urte ofizioan. Duela bost urte zabaldu zuen Mimar ile-apaindegia eta urte hauetan etengabeko berrikuntzan dihardu: "Niri gustatzen zait etengabe berritzea, nire bezeroei ahalik eta aukera zabalena eskaintzeko".

## Zerbitzu aukera zabala:

Ile apaintzeko zerbitzuez gain, Mimarrek estetika tratamenduak ere eskaintzen ditu, eta, azkenaldian, bisuteria produktuak eta emakumeendako jantziak ere eros litezke bertan.

## LASER DEPILAZIOA


Hiru hilabetean behin eskaintzen da laser bidezko depilazioa, aurrez hitzordua hartuta. Aurrekontua ere eska daiteke, "konpromisorik gabe".

## SEMIPERMANENTEA AZAZKALETAN

Azazkalak ere margotzen dira, kalitatezko produktuekin. Bataz beste, margoak 15 egun irauten du. Horrekin batera, manikurak, pedikurak eta solariuma ere eskaintzen da.

## ILEA APAINTZEKO ZERBITZUAK

Ilea apaintzeko aukerak ere ugariak dira: keratina tratamendua, permanente naturala, balayage-ak, jaunartze eta ezkontzetarako apainketak,



Laser depilazioa ere eskaintzen da.

ilea hidratatzeko tratamenduak, peeling-a, ilea ez erortzeko tratamendua...

## PREZIO BEREZIAK JUBILATUENTZAKO

Eguaztenetan, jubilatuentzako prezio bereziak eskaintzen dira, %30a baino gehiagoko deskontuekin.

## OPARITARAKO PRODUKTUAK

Oparitzeko egokiak diren produktu sorta ere bada: kremak, koloniak, poltsak, belarritakoak, emakumeendako jantziak (jakak, alkandorak, kamisetak, prakak...)...

## AIRE GARBIA

Bezeroa eroso eta seguru sentiarazteko ahaleginean, duela hilabete batzuk lokaleko airea garbitzen duen gailua ezarri da.

## TRATU HURBILA

Marimarrendako garrantzitsua da bere bezeroei tratu hurbila eta konfiantzazkoa eskaintzea: "Nire bezeroak etxean bezala senti daitezen eta nahi dutena lasai eskatzea nahi dut. Ondoren, guk laguntzen diegu ahal dugun beste. Guzti hori kafetxo bat hartuz".

# Pauso berriak SAPAko proiektuan

Lursailaren kutsadura azterketa eta eraikinaren zaharberritze proiektua idazteko lanak adjudikatu ditu Udalak

Diputazioak emandako dirulaguntza baliatuta -32.000 euro-, Udalak otsail hasieran adjudikatu zituen SAPAren hasierako eraikinaren lurzoruaren kutsadura azterketa eta eraikinaren zaharberritze proiektuaren idazketa.

## Proiektu berriak pentsatzen

Kutsadura azterketa Afesa Medioambiente enpresak egingo du, hiru hilean; zaharberritze proiektua, berriz, Behark arkitektura enpresak. Are gehiago, enpresa horrek idatzita du esparruaren oinarritzko birgaitze proiektua. Orain, hura egokitu eta hilabetean entregatuko dio Udalari.

Udalaren hurrengo pausoa bi azterketetatik ondorioztatzen dena gauzatu ahal izateko proiektu berriak prestatzea da.



Romero diputatua eta Aldazabal alkatea.

Izan ere, otsailaren 11n Rafaela Romero Mugikortasun diputatua SAPAn izan zen, aisialdi gunerako egokitu nahi den lekua ikusten. Diputazioak “jarduera industrialarengatik bereziki narriatuta dauden eta birgaitzeko aukera duten eremuei buruz” egindako diagnostikoan Kanoi Fabrika aintzat duela esan zuen.

## Jostailuak eta beste, ontzi zurian

Otsail hasieratik, edukiontzi zurietan, arropaz, oihalez eta ehunez gain, liburuak, jostailuak, bitxiak eta bazar-hondakinak (figuratxoak-eta) ere laga daitezke. Debabarreneko Mankomunitateak azpimarratu duenez, helburua da “ahalik eta hondakin gehien gaika biltzea, baita euren tipologiagatik berrerabiltzen errazak direnak ere”. Datozen lau urteotan, irabazi asmo bako Kooperera enpresak kudeatuko du zerbitzua, ia 49.500 euroko aurrekontuarekin.

Mankomunitateak helarazitako datuen arabera, 2019an, Kooperak batutako hondakinaren %47,49a berrerabili egin zen, %37,63a birziklatu eta %14,88a erraustegira bideratu. Gaineratutakoaren arabera, Kooperak berrerabilpen tasa hori lortu du, neurri batean, eskualdean dituen bi dendei esker: Kooperera Store. Bertan merkaturatzen ditu produktuak. Bata Ermuan dago eta bestea Eibarren.

## Plaentxia.eus-en kanalak

Jaso herriko informazioa zeure mugikorrean



### Telegram

Bilatu @plaentxia Telegramen eta batu kanalera



### Whatsapp

Sartu [www.labor.eus/plaentxia](http://www.labor.eus/plaentxia) helbidean eta batu kanalera



# Albisteak jasotzeko bide berriak

Aurrerantzean, 'Telegram' eta 'Whatsapp' kanalen bitartez ere jaso ahal izango da 'Plaentxia.eus' atarian lantzen diren edukien berri

Aktibatuta daude Plaentxia.eus atariko edukiak jasotzeko bi kanal berriak, Telegramen eta Whatsappen. Twitterreko, Instagrameko eta Facebookeko kanalei gehitu zaizkie. Herriko komunikabidean lantzen den informazioa eskuratzeko ahalik eta erraztasunik handienak ematea da helburua.

## Zelan aktibatu kanalak

Telegramen, @plaentxia bilatu eta Whatsappen, honakoa da bidea: [www.labur.eus/plaentxia](http://www.labur.eus/plaentxia).



Telegrameko kanala.

## Asebetetze inkesta

Bestalde, martxoan bukatuko da Pil-pilean herri-komunikabideari buruzko asebetetze inkesta erantzuteko epea.

Orain arte, 76 lagunek bete dute. Emandako erantzunetan, *atalen bat gehitu edo kentzeko* galderan, adibidez, gehien errepikatu dena Historiarekin lotutako zerbait gehitzea izan da. Eduki baloratuenak, berriz, erreportaje sakonak, albisteak eta kultura gaiak dira.

Jasotako erantzunekin oso gustura izan arren, benetan estimatuko genuke gehiagok ere betetzea. Inkesta anonimoa da. Helburua da irakurleen interesak eta iritzia hobeto ezagutzea etorkizunean zerbitzu hobea eskaini ahal izateko. Plaentxia.eus atarian dago inkesta.

# Hasi dira nagusiei txertoa ematen

Mendaroko Ospitaletik esandakoaren arabera, eguaztenean hasi ziren 100 urtetik gorako debabarrendarrak txertatzen

SARS CoV-2 koronabirusaren kontrako txertatzeko kanpaina aurrera doa, askok espero baino motelago, baina aurrera.

Eguaztenean hasi ziren Debabarrenean 100 urtetik gorako herritarrak txertatzen. Soraluzen 2 herritar daude.

Mendaroko ospitaletik esan dutenez, gutxi direnez, bukatu arte eten gabe jardungo dute haiek txertatzen.

Ondoren, adinaren hurrenkeraren arabera segituko

dute txertoak ipintzen.

Dagoeneko, anbulatorioari 80 urtetik gorako herritarren zerrenda eskatu diote. Izan ere, Osakidetzak zuzenean deituko die txanda emateko.

Oraingo, txertoa hartzeko datarik ez dutenak anbulantzietako langileak dira. Ardura eta kezka handiz bizi dute egoera. Esan dutenez, laster txertorik hartu ezean, grebara joko dute. Ulergaitza egiten zaie bizi duten egoera.

## Zabalik dago herriko ikasgela

Unibertsitateko ikasleak azterketa sasoi beteetan dauden honetan, Udalak jakinarazi du Ikasgela zabalik dagoela.

Erabilera murriztuta dauka, COVID-19 dela eta. Berezkoak dituen 24 ikas-tokien edo mahaien erdiak erabili ahal dira orain. Mahai bakoitzak ordenagailua konektatzeko entxufe eta wifi konexioa ditu. Horrez gain, kafe-makina eta komuna ere baditu. Ikasgela 08:00etatik 22:00ak bitartean dago zabalik. Hori bai, zerbitzua erabili ahal izateko Udaleko Arreta Bulegoan izena eman behar da, txartel elektronikoko pertsonalizatua behar baita sartzeko.

# Umeen belarri tirakada

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIAK: PLAENTXI HERRI ESKOLA

Plaentxi Herri Eskolako HHko 3, 4 eta 5 urteko ikasleek modu deigarria baliatu dute herriko hainbat eremuren egoera narrasa azalertzeko. COVIDaren pandemiak eskola orduetan Estaziñoko parkea erabiltzera eraman ditu. 5 urteko umeak segituan konturatu ziren parkeko hainbat jolas apurtuta edo lekuz kanpo zeudela eta zikin samar zegoela. HHko 3 eta 4 urteko ikaskideei parkearen alde lan egitea proposatu zieten. Esan eta egin. Belaitzen erremintak erosi, eskolan eginbharrekoak aztertu eta erabaki, eta urtarrilean borobildu dute ekimena: parkea txukundu dute. Gainera, herritarrak eta erakundeak gauza bera egitera "gonbidatu" dituzte, herrian nonahi ipini dituzten kartelen bitartez. Eskari nagusiak bi dira: txakur-kakak eta hondakinak batzea.





## GUTUNAK

### **Eskerrik asko!**

#### **JOSE MARI GOMEZEN ANAI-ARREBAK**

Jose Mari Gomezen familiakideok bihotzez eskertu nahi ditugu egunotan gure senidearen heriotza dela eta jaso ditugun dolumin eta maitasun adierazpen guztiak. Jose Marik bere lasterketa handiena jokatu du, oraingoan, arrakastarik gabe. Helmugara iritsi da, baina bataila ez du irabazi eta bihotzak hustuta eta oso triste laga gaitu. Hala ere, langa oso altu utzi du. Jose Mari hil izanak ez du inor epel utzi. Horrelakoa zen bera, parte-hartzailea, berritsua, alai eta bihotz handikoa. Ume HANDI BAT.

Espero dugu egoerak aukera ematen digunean, eskaini ahal izango diogula berari gustatuko litzaiokeen moduko agur meza, azken agurra zuek ere bertan zaudetela eman ahal izateko.

Eskerrak eman nahi dizkiegu bizitzan zehar lagundu, ulertu eta arreta eta maitasuna eskaini zioten guztiei. Umeez dioten moduan, batzuetan astuna izan arren, “putoamoa” zen.

Beti izango zaitugu gogoan.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA





## HAUSNARKETA

**Zuhaitzekiko harremana**

Gero eta gehiago azpimarratzen da zuhaitzek eta basoek duten garrantzia. Zelako harremana duzu zuk zuhaitzekin?



**MAUDILIO CASTRO DEL RIO**

“Yuberosen (Leon), jaioterrian, sagarrondoak, madariondoak, okanak... sartu ditut, baita gaztainondoak eta makalak ere. Bazen haritz bat, hura besarkatzeko zazpi lagun behar ziren. Han baso komunal asko dago eta etxe bakoitzari egur kopuru bat egokitzen zaio.”



**MARI JOSE AGEDO RIVERO**

“Askok gustatzen zaizkit gereziondoak, magnolioak eta likianbak. Estazioko parkean badago likianba motako zuhaitz eder bat, udazkenean itxura zoragarria hartzen duena. Zuhaitzak urtaroka aldatzen dira eta eurekin batera gure egoera animikoa ere bai”.



**ANE OSORO TXURRUKA**

“Eskolan eta baserrian sartu izan ditut haritzak, pagoak... Pagadiak gustatzen zaizkit, Urbiakoak eta mendigainekoak. Haietan sartzeak sentsazio berezia eragiten du. Bereziki gogoan ditut Eskoziako kale bateko gereziondoak, udaberrian loretan. Ederrak”.



**HARITZ RUIZ ORKAIZTEGI**

“Burgosen sartu izan ditut gereziondoak, intxaurrendoak, pinuak... Niri gehien gustatzen zaidan zuhaitza gereziondoak da, lorez beteta dagoenean ikusgarria delako. Olara bidean bada zuhaitz bat haziak helikoptero modura jausten zaizkiona”

## PUNTUA



**NIKOLAS MORILLO**

**Nagusien elkarteak hobe**

**S**oraluzen 3.974 bizilagun gara; %30 inguruk 60 urte pasa ditu. Beraz, argi dago adin tarte horri zuzendutako zerbitzuak indartu beharra dagoela. Zerbitzu horietako bat da Jubilatuen Etxea.

Zer da Jubilatuen Etxea? Prezio baxuak dituen taberna, zaharrak biltzeko, euren kontuen berri emateko edo mahai-jokoetan aritzeko dela ulertzen dugu.

Desegin ditzagun topikoak: Elkarteak zera egiten da: jubilatuen edo jubilatuen ez direnak elkartu, adin desberdinetako pertsonen zuzendutako jarduerak antolatu edo intereseko lekuak ikustera joan eta beste herritar batzuekin sozializatzeko aukera ematen duten txangoak antolatu.

Askok ez dute izena ematen pentsatzen dutelako ez direla zaharrak eta izena emanez gero, lanerako harrapatuko dituztela.

Baina norbaitek ekarpenen bat egin dezakeela uste badu, hemen talde bat aurkituko du eta bizilagunentzat jarduerak egiteko aukera izango du. Zuzenean parte hartu nahi ezean, berriz, bazkide izanez "bakarrik" taldea osatzen lagunduko du gure eskaerak indartzeko.

Izan ere, horixe da Nagusien Elkarteak: zerbitzua eskuratzeaz gain, berba egiteko, sozializatzeko, bingoan jokatzeko, kartetan, trago bat hartzeko... ONDO PASATZEKO gunea. Beraz, Zaharren Biltokia baino Nagusien Elkarteak hobe.



# Soraluzeko entziklopedia digitala

Hiri gutxiak dute haiei buruzko entziklopedia oso bat, are gutxiago herriek. Aro telematikoan, entziklopedia digital batzuk sortu dira. Andaluzian, adibidez, probintzia hiriburu bakoitzak berea dauka. Bilbok ere badu: Bilbaopedia. Bada, gutxi horien mailan dago Soraluze, hemen ere badelako bertako entziklopedia: Sorapedia.

Testua: **Ubane Madera.**  
Argazkiak: **Sorapedia.**

**B**asil Zaharoff-ek (1848-1936), inoiz izan den arma saltzailerik arrakastatsuen eta arriskutsuena, ezizenez “heriotzaren merkataria”, Soraluzekin lotura estua izan zuen.

Alde batetik, bera izan zen Soraluzera etorri (1886) eta S.A. Euscalduna begiz jo zuena, Erresuma Batuko Nordenfelt arma enpresak erosteko gero. Eta bera izan zen Londoneko The Placencia de las Armas Company Limited elkartearen zuzendaria (1886) lehen, eta Soraluzeko Compañía Anónima Placencia de las Armas-en lehendakaria eta zuzendaria gero (1896).

## "Iraganeko eta oraineko gordailua"

Azken asteetan, Sorapedia.eus entziklopedia digitala zabaltzerakoan irakur daitekeen edukiaren hasiera da hori. Errelato erromantiko baten pareko kontakizuna dakar jasota, ondo dokumentatuta eta xehetasunez josita, guztiak ere Soraluzerekin lotura dutenak.

2015ean, izaera horrekin jaio baitzen Sorapedia, “Soraluze herriaren entziklopedia, iraganeko eta oraineko gordailua” izateko nahiarekin. "Soraluzeri buruzko informazioa biltzen du, edozein informazio. Historikoaz gain, gaur eguneko ere. Zer den baino, zertarako den garrantzitsuagoa da. Sorapediak Soraluzekoak -Soraluzen bizi direnak- soraluzetarrak bilakatzen lagundu nahiko luke, horretarako behar den materiala bilduz”, esplikatu du Juan Carlos Astiazaranek, Sorapediako bultzatzaileetako batek.



Basil Zaharoff, Heriotzaren merkataria.

### 1.300 sarrera, 4.200 argazki eta 300 testu

Sei urte pasatu dira Sorapedia sortu zenetik. Bitarte horretan, edukiz ia hutsik zen entziklopedia etenik gabe elikatzen joan dira.

Orain, denetik dauka: 1.300 sarrera, 4.200 irudi eta 300 testu. “Gai batzuk nahiko sakon landuta daude: *Geografia eta Ingurumena*, *Ondarea Bibliografia* eta *Ekonomia*. Bestalde, *Soraluze* izeneko atala ere nabarmendu nahiko genuke. Modu azkarrean herriaren ideia txukun bat egiteko balio duten edukiek osatzen dute. Beste gai batzuetan, berriz, eduki nahikoa izan arren, gauza asko daude lantzeko: *Historia*, *Kirolak*, *Pertsonaiak*, *Kultura...*”, azaldu du Astiazaranek.

### Biltegi Digital eta guzti

Xehetasunak aipatze aldera, **Soraluze** atalean, herriko abizenak, etxe-izenak, armagintza, kale izendegia, komunikabideak (errepideak, trenbidea...) urteurrenak, tunelak... informazio mordoa dago batuta.

**Geografia eta Ingurumena** atalak, baserrien, iturrien, ibaien, mendien, olen, erroten... berri dakar.

**Bibliografian**, Soraluzeri buruzko liburuak, artikulak eta mapak aurki ditzakegu.


**Ondarean**, arkitektura, eskultura, urregintza, istorioak, Soraluzeko euskara... eta beste dago.

**Ekonomia** atalak ere denetik dauka: olak, errota eta zentralak, torlojugintza, autogintza, armagintza, makinagintza, enpresak, estatistikak...



Sorapediaren talde sortzailea

Balategietan dagoen Mendikute Jauregia eraiki zenean, XVIII. mendean zelakoa zen erakusten du Sorapediako errekreazioak.



Azken adibide bat jartzearren, **Biltegi Digital** ederra dauka Sorapediak. Bertan 25 liburu, 10 bat mapa eta 36 kantu ditu gordeta. Gainera, guztietan materiala deskargatzeko aukera dago eta fitxategiak zelan deskargatu esplikatzan duten argibide guztiak bertan daude.

### Wikidepiaren filosofia

Sorapedia sortu zen Soraluze Alkarrekin ekimenaren barruan, Herri identitatea izeneko taldeak bultzatuta. Talde hori honako lagun hauek osatzen dute: Miren Gallastegik, Jabi Garmendiak, Ana Maiztegik, Egoitz

Unamunok eta Juan Carlos Astiazaranek.

Baina, "Sorapediaren atzetik Wikipediaren filosofia dago. Hau da, edozeinek parte har dezake, gauza berriak sortzen, dagoena osatzen edo zuzentzen. Ez da, inondik inora, "akademikoa" izan behar. Soraluzeri buruzko zerbait kontatzeko izatea nahikoa da", diote sortzaileek.

"Badira, adibidez, beste laguntzaile esanguratsu batzuk. Bakar batzuk aipatze aldera: Fernando Alberdi -XIX.-XX. mendeetako materiala eskuratzen lagundu duena-, Oscar Perez -3D edukiaren diseinatzailea eta bideo-egilea-, Kontrargiko kideak -Atzoko eta Gaurko argazkiak-, Imanol Lopez Artolazabal -musika eta doinuak-, Soraluzen bizi Soraluze izan projektuko kideak... eta Pil-pilean-ekoak!", gaineratu dute.

"Sorapediak duen beste ezaugarri bat azkartasuna eta malgutasuna da. Beste modu batean esanda, gauzak sortu ahala argitaratzen ditugu, zirriborro moduan kasu askotan. Halaxe, akatsez konturatzen direnek edo zerbait ekartzeko dutenak hobetzen laguntzen digute. Ez dugu itxaroten dena perfektua izan arte", adierazi du Astiazaranek.

### Etengabeko lana

Izan ere, etengabeko lan amaigabea dago Sorapediaren atzetik. Azken batean, nahiz eta hori ere lan handia izan, entziklopedian informazio historikoa behin sartuta nahikoa da, baina Soraluzeri buruz sortzen diren eduki berriek ez dute atsedunik eta horiek ere igo behar dira Sorapediara.

Halaxe azaldu du Astiazaranek informazio bilketaren prozesua: "Informazioa bi bidetatik biltzen da: guregana datorrenean edo bila goazenean. Alde batetik, inoiz inon Soraluzeri buruz ezer agertzen bada, batetik edo bestetik abisua ematen digute -badira laguntzaile batzuk halako gauzekin konturatzen oso onak!-. Informazio horrekin sarrera berri bat egiten da, edo aurreko sarrerak eguneratu egiten dira. Adibidez, Xabier Barrutieta arkitektoak "Proyecto de reforma integral de la iglesia Santa María la Real de Soraluze,

Gipuzkoa” argitalpena iaz argitaratu zuenean, sarrera bat egin genuen “Liburuak” atalean, liburu berri horren nondik norakoak azaltzen. Horrez gain, beste bi sarrera egokitu genituen, Bibliografia (eu) ataleko zerrendan gehitu genuen parrokiari buruzko liburua, eta Biltegi digitala izeneko atalean liburua deskargatzeko esteka edo lotura jarri genuen.

Gai jakin bat landu nahi dugunean, berriz, lanketa desberdina egin behar da. Orduan, ahal den informazio gehien eskuratzen saiatzen gara eta lortutako horrekin sarrera sorta sortzen dugu. Horieta azkena, esaterako, Torlojugintza izeneko sarrera izan da. Kasu horretan nahikoa material eskuratu genuenez, artikulu orokorraz gain, gaia sakonago lantzen zuten beste artikulu batzuk ere prestatu genituen: Teknologia, Bilakaera, Enpresen historikoa, Gaur eguneko enpresak, Torlojugintzarekin lotutako ipuin eta gertakariak...

Halako kasuetan, lanak luze jotzen du, zirriborrotik hasita gaiari buruz lanketa maila txukun batera heltzeko. Hortik aurrera, etengabeko osatze prozesuan sartzen dira gai ugari”, esan du Astiazaranek.

### Gero eta erabiltzaile gehiago

Lanak lan, orain arteko emaitzarekin gustura daude egileak. Eta badirudi irakurle-ikusleak ere gero eta gehiago erakartzen eta asetzen dituela Sorapediak. Izan ere, urtetik urtera gora doa herriko entziklopedia digitalak duen erabiltzaile kopurua: "Erabilera nahikoa txukuna du, hileko 500 bat erabiltzaile. Gehienbat Soraluzeko euskaldunak dira, baina badaude kanpotarrak -kanpoan bizi diren soraluzetarrak- eta erdaldunak ere -itzultzaile automatikoak erabiltzen dituztenak-. Soraluzen 3.000 euskaldun baldin badaude, -Ahobiziaz eta Belarriprestak batuta-, ez da audientzia makala. Audientziak gora egin du, batez ere Plaentzia- eus herriko ataria digitalarekin elkarlanean ari garenetik. Lehen bloga lantzen genuen bertan; iaz, urteurrenak argitaratu ziren, aurren, berriz, toponimia lantzen hasi dugu urtea. Etorkizunerako ere lankidetzak berriak asmatuko ditugu", dio Astiazaranek.

Hori bai, Astiazaranek gogora ekarri du laguntzarako premia ere baduela Sorapediak. Batez ere, bi ildotan. Alde batetik, sortzaileei dagokienez: "Puntu ahula daukagu, gehiago beharko genituzke".

Eta beste aldetik, alde ekonomikoan Soraluzeko Udalaren laguntza "ezinbestekoa" da. "Harremanak oso onak dira; hasierako urtean, Sorapediaren garapen informatikoa ordaindu zuten, eta orduetik hona mantenua. Datozen urteetan ere haren laguntza izango dugula konbentziturik gaude".



Antzinako eta gertuko historia gertakari ugari daude jasota Sorapedian, argazkikoa kasu. Erakusten du Sacia lantegia eraisten.

**"TORLOJUGINTZA SARRERA DA OSATU DUGUN AZKENA; TEKNOLOGIA, ENPRESAK, IPUINAK..."**

**"ALDE EKONOMIKOAN, UDALAREN LAGUNTZA EZINBESTEKOA DA; HARREMANAK OSO ONAK DIRA"**

# Sorapediak jasota dituen bitxikeria batzuk

Ugari dira ezustekoa eragiten duten Sorapediako edukiak. Hona hemen 6 bitxikeria.

## Andre abadea

Soraluzen andra abadea izan genuen, errentak kobratzen eta mezak "azpikontratatzeko" zituen.

## Aberatsak agintari

Garai bateko "euskal demokrazia" zenak bazituen bere ajeak: XVI eta XVII mendean denok zeuzkaten eskubide berberak (andrek, gizon gazteek eta kanpotarrek ezik) baina herriko kargu publiko guztiak dozana bat familiariek (herriko %2ak) eskuraten zituzten beti. XVIII mende hasieran 50 bat aberatsek (herriko %5ak) agintzen zuten, eta 1766. urtean pobreen ordezkariak ere aukeratzen zuten (del común), baina aberatsek gehiengo mantentzen zuten Udalan.

## Soraluze mapetan

Josef Florencio Lamotek, bere mapa famatuan (1756), zioen: Europako printzeek agindu zutela Soraluze mapetan sartzeko. Eta egia da: XVIII mendeko Europako mapa orokorretan Soraluze agertzen da; eta Mafran (Portugalen) agertzen den garai bereko mapamundian ere!

## Bilbao-Behobia Iruretik

Bi mila urte baino gehiagoan, XIX mende hasiera arte, orduko Bilbao-Behobia errepide nagusia Azitainetik Irurera igotzen zen, handik



1634ko Johannes Janssoiusen mapan Placentia agertzen da.

Soraluzeraino jeitsi, ibaia zeharkatu, eta mendian gora, San Andresetik Irukurutzetaraino joaten zen, handik Azkoitiara jeisteko. Bide honen ondoan sortu zen Soraluze, baserri nagusiak, ermitak, lapurrak...

## Munduko kalerik estuena

Soraluze herri estu eta luzea izanik, ez da harritzekoa jakitea munduko kale estuena Placentian dagoela (Wikipediaren arabera, Sorapediak ez du ezer esaten honetaz). Baina kale hori ez dago Soraluzen, Belizeko (Amerika) Placentian baizik!

## Placentia lokomotora

Placentia izeneko lokomotora izan zen. 1886an erosi zuten,

BI MILA URTE BAINO  
GEHIAGOAN, BILBAO-  
BEHOBIA ERREPIDEA  
IRURERA IGOTZEN ZEN

Durango-Zumarraga trenbiderako, eta 1888 urtean Galicia aldera saldu Placentia izena jarri. 1902 urtean Galicia aldera saldu zuten Galiciako Ferrocarril de Puente Nuevo a Ribadeo elkartearisaldu zioten, 28.209 pezetatan, eta honek Abres izena jarri zion. Azken urteak Ferrol-Gijon trenbidea eraikitze lanetan eman zituen (1965-1972).



Placentia lokomotora.

# "Soraluze uste baino aberatsagoa da"

## JUAN CARLOS ASTIAZARAN

SORAPEDIAREN SORTZAILLETAKO BAT

Sorapediaren tripak ederki asko ezagutzen ditu Juan Carlos Astiazaranek.

### Egilearen ikuspuntutik zein da Sorapediako sarrera kuttunena?

Komunikabideena. Herritik pasatzen diren bideak aztertzen hasi eta konturatu ginen alderantziz zela, herria egokitu zela antzinatik zeuden bideetara. Labaderogainen parean zegoen Gipuzkoa mendebaldeko ibi garrantzitsuenetakoa; haren inguruan sortu zuten Soraluze.

### Sarrera zailena zein da?

Agian, Torlojugintzarena. Lana ez da oso zaila izan, baina Soraluzeri horrenbeste eman dion lanbideak askoz sakonago lantzea merezi du; informazio faltarengatik, aurrera egitea zaila egiten zaigu.

### Edozeinek elikatu edo zuzendu dezake Sorapedia; zer egin behar da?

Gogoia besterik ez da behar eta asko laguntzen du gai bat landu nahi izateak: informazioa bildu, egituratu, osatu... eta "sorapediaratu" egin behar da besterik ez. Teknikoki ez du misterio handirik: kontua zabaldu behar da (edo, nahi bada, kontu anonimoa erabili, erabiltzailea: berria/ hitz gakoa: sorapedia), sartu eta idatzi. Laguntzak badaude, eta behar badira

SORAPEDIAKO SARRERA  
ZAILENAK DIRA  
TORLOJUGINTZARI  
DAGOZKIONAK



Juan Carlos Astiazaran.

ikastaroak ere bai. Zuzenena, gurekin harremanetan jarri eta berba egingo dugu.

### Zergatik kontua zabaldu behar hori?

Hasieran, ekarpenak libre ziren, Wikipedian moduan. Baina behin, astebetean 200 sarrera berri agertu ziren... Ezin genuen sinistu, ea taldeko zeinek egin zuen halako lan handia... Baina, Nigeriatik automatikoki sartutako propaganda orriak ziren! Lan handia hartu genuen "polizoiak" atzematen eta ezabatzen. Ordutik, sartzeko "izen bat" eskatzen dugu, halakorik berriro ez gertatzeko. **Sorapedia euskaraz jaio zen?** Lapikoa eta babak bereizi behar dira. Lanabes moduan,

BEHIN NIGERIATIK  
GEHITUTAKO 200  
PROPAGANDA ORRI  
SARTU ZITUZTEN

Sorapedia euskaraz zein gaztelaniaz lan egiteko prestatu genuen -edo ingelesez, alemanez, frantsesez... edozein hizkuntzatan-. Horregatik sarrera bakoitzak (eu) edo (es) dauka bukaeran, zein hizkuntzatan dagoen adierazteko. Dena dela, gaur egun Sorapedia "lapikoan" dauden "baba" gehienak euskaldunak dira.

Etorkizunean... ikusi egin behar: Sorapedia gaztelaniaz nahi duena balego, atek zabal-zabalik topatuko ditu.

### Beste zerbait gaineratu nahiko zenuke?

Gure herria beste modu batean begiratzen ikasi beharko genuke, Soraluze uste baino askoz aberatsagoa da eta. Etorkizunari begira, Soraluzen baditugu baikorrak izateko motiboak: egoera txarrenetan (Soraluze ez da egokia nekazaritzarako, aldapa oso handiak ditu eta urak lurra eramaten ditu), nahiz eta batzuek alde egin, beste batzuek lurrari etsi zioten (mendian 200 kilometrotik gora "mugak" eraikiz eta urtero mantenduz) eta azkarrenek baldintza okerrak (aldapa eta ura) diru-iturri bihurtu zituzten, burdinolak sortzeko indarra, alegia. Okerrenari buelta emateak ekarri zion aberastasuna herriari.

EGOERA TXARRENETAN,  
AZKARRENEK BALDINTZA  
OKERRAK DIRU-ITURRI  
BILAKATU ZITUZTEN

S	T	I		A	L
	O				S
L			T		I
	I	O		L	
I	T	A			
	A		I	T	

## Otsailero Sudokua

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letra kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

## Jesus, Maria eta Jose

NESKA-MUTILAAA...



## Handitik txikira



Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 6.

## Margotu



## engainaria

Bost zati hauetatik bakarria dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.





# Beti jan eta beti gose

Erreparatu ongi irudi hau. Hau da kuxidada! bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzen al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.


MAHAIAN DAGOEN EZER EZ UKIT!

GONBIDATUAK DITUGU ETA



## Dutxara!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honako domino zati honek zentzua izan dezan.



## Zu bai Hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



# Jose Mari Gomez kirolaria zendu da

Jose Mari Gomez pertsona ezaguna zen herrian. Gaztetan atletismoan eta gerora futboleko epaile jardun zuen urte luzez.

Otsailaren 4an hil zen Jose Mari Gomez, 62 urte zituela, minbiziaren ondorioz. Bere heriotzaren berri jakin orduko, herritar askok adierazi dute bere samina. Izan ere, Jose Mari pertsona berezia eta oso ezaguna izan da herrian.

## Kirol ibilbide luzea

Jose Mari kirol ibilbide luze eta oparoa egin zuen bere bizitzan zehar. Gazte gaztetatik, kirola izan zen bere zaletasun nagusia; lehenik, korrikalari moduan aritu zen, eta aurrerago, futboleko epaile gisa. Korrikalari bezala, 70eko eta 80ko hamarraldietan, inguruotako lasterketa asko irabazi zituen; tartean, Atxa Memorialaren lehen edizioa (berak garaipekin kuttunetakotzat zeukana) eta



Atxa Memorialaren lehen edizioa (1982).

beste hainbat. Gero, lesio baten ondorioz, laga egin behar izan zion korrika egiteari eta beste kirol batzuk praktikatzeari ekin zion, eskalada kasu. 90eko hamarkadaren erdialdera, futboleko epaile lanari ekin zion eta 25 urtez gizonezkoen nahiz

emakumezkoen partiduak zuzentzen jardun zuen, Ezozin nahiz inguruko beste futbolzelai askotan. Hori dela eta, 2019ko abenduan, Soraluze futbol taldeak omenaldia eskaini zion, mende laurdenez epaile moduan egin zuen lana eskertzeko asmoz.

## Jose Mariren mezua

Jose Mariren familiak hil aurretik idatzita laga zuen mezua helarazi dio Pil-pileani. Mezu horretan herrian atletismoaren inguruan egin diren ekimen nagusi batzuk aipatzen ditu eta herritarrei eskatzen die etorkizunean ere kirol bideari jarraipena emateko: "Lerro hauen bitartez, eskerrak helarazi nahi dizkiet atletismoa bultzatzeko ekimenei babes desinteresatua erakutsi dioten eta erakusten diharduten guztiei, desiratuz ez dadila emendatu oraindik pizturik irauten duen kirolaren sugar txiki hori, berriro ere talde bat eratuz, beste batzuek orain dela ez horrenbeste hasi zutena ahaztu ez dadin". Idatzia osorik irakurri ahalko da Plaentxia.eus webgunean.

## Pilota eskolak umeen entrenamenduak hasi ditu berriro

Pilota Eskolak otsailaren 19an ekin zien berriro entrenamenduei. Iazko lehen konfinamenduz geroztik, etenda izan du eskola mailako jarduna, begirale faltagatik. Federatuek, berriz, laga ahala, jarraitu egin dute.

Orain, lau-bost guraso konprometitu dira Pilota Eskolan parte hartzera. Horri



Pilota eskola, eguaztenean.

esker, berriro ekin diete entrenamenduei, Aitor Atxotegi arduradun dela.

Entrenamenduak astean birritan egiten dituzte ia guztiek: nagusiek, federatuek, paletakoek eta umeek.

Pandemiak ezarritako mugen ondorioz, ordubeteko saioak barik, 45 minutuko txandak dira oraingoak, denak musukoarekin.


50 ume pasa dabilta pilota eskolan; federatuak, berriz, 12 dira, eskuz eta paletan.

# Klasikoa eta folka egun berean

Martxoaren 7an, Txopitea sopranoak eta Aramu musika taldeak emanaldi bana eskainiko dute antzokian.

Bidane Txopitea sopranoak eta Aramu taldeak musika emanaldi bana eskainiko dute martxoaren 7an, antzokian; musika klasikoa eta folk musika interpretatuko dituzte hurrenez hurren, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Bi emanaldiak uztartzeko ideia, Txopitea eta Azkarate musikarien elkarlanetik dator, aspaldiko ezagunak baitira.

Emanaldi bikoitza Udaleko Berdintasun sailak antolatu du, M8aren bueltako egitarauaren



Aramu taldearen irudia. ONINTZA AZKARATE

baitan eta sarrerak egunean bertan eskuratu ahaliko dira kiroldegian, 3 euroko prezioan.

## Klasikoa eta folka

Lehen emanaldian, Bidane Txopitea soprano durangarrak eta Iker Ruiz de Alegria pianistak musika klasikoko pieza solteak eskainiko dituzte: Serenata (Shubert), A Chloris (Hahn), Ipuina (RM Sarasua)...; eta opera ezagunen zatiak ere bai: La Traviata (Verdi), "La Wally" (Catalani).

Bigarren emanaldian, Aramu taldeak folk-pop estiloko kantak interpretatuko ditu, gehienak taldeak berak sortutakoak. Taldekideak dira: Onintza Azkarate (biola, gitarra, ahotsa), Amaia Jaio (txeloa, pianoa, ahotsa) eta Joanna Keen (ahotsa, perkusioa).

## Antzerki garaia

### EL ENJAMBRE Vaivén producciones



**EGUNA**  
Martxoak 13, larunbata  
13 de marzo, sábado

**ORDUA**  
19:00

**EGILEA**  
Kepa Errasti

**ZUZENDARITZA**  
Mireia Gabilondo

**ANTZEZLEAK**  
Vito Rogado  
Dorleta Urretabizkaia  
Aitziber Garmendia  
Getari Etxegarai  
Sara Cozar  
Naiara Arnedo

**HIZKUNTZA**  
Gasteiera

**SARRERA**  
10 € \*

### FUTBOLISTOK Txalo produkzioak



**EGUNA**  
Martxoak 27, larunbata  
27 de marzo, sábado

**ORDUA**  
19:00

**EGILEA**  
Zuhaitz Gurrutxaga

**ZUZENDARITZA**  
Zuhaitz Gurrutxaga

**ANTZEZLEAK**  
Zuhaitz Gurrutxaga

**HIZKUNTZA**  
Euskara

**SARRERA**  
5 € \*

\* Bi antzezlantarako sarrerak iratxon erosi ahal izango dira aurrez



**SORAILUZERKO UDALA**  
Kultura Batzardea



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura, Turismo, Espazioak eta Artea Departamentua



**ORAIN KULTURA**

# Pil-pileanek 25 urte: otsailekoak

2021EAN PIL-PILEAN HERRI-KOMUNIKABIDEAK MENDE LAURDNA BETEKO DU

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU  
ARGAZKIAK: PIL-PILEAN

---

Pil-pileanen urteurrena dela eta, 25 urteotako gertakari eta efemeride asko datoz gogora. Aldizkarietan jasotako hainbat gertakari daude segidan.

1998-1999

---

## Parke eolikoa, elizako obrak eta zinemako sabaia

1998tik 1999rako otsailetan albiste esanguratsuak izan ziren herrian.

1998an, esaterako, hautsak harrotuta zebiltzan, EAEko energia eolikoaren plana onartuz gero, mendigainean parke eolikoa egingo baitzen, 25 haize errota ipiniz. 2000. urtean sortu zen Mendigainak ikutu bez! taldea. Hainbat protesta ekimen egin zituen kontra, sinadura bilketak, elkarretaratzekak... Justu 2002ko otsailean iritsi zen albistea: proiektua baztertu egin zuten. Azkoitia, Elgoibar, Bergara eta Soralezko talde ekologistek eta Udalek azaldutako kontrako jarrerak eta aurkeztutako arrazoiek bultzatu zuten Jaurlaritza erabaki hori hartzera. Arrazoi nagusia aztarna megalitikoak izatea zen.

Bestalde, 1999 hasieran, obrak ziren hizpide. Batetik, eliza berritzeko lanak iragarri zituzten. Kanpandorrea berritu, zinema zaharra bota,

hezetasuna kendu eta barrua eraberritzea zen helburua. Lanek 300 milioi pezetako kostua izatea aurreikusi zen. Hala ere, beranduago hasi ziren lanak. Gero, eliza itxita egon zen, gutxienez, urtebetez.


Bestetik, kiroldegiko zinemako sabaia jausi egin zen 1999ko otsailaren azken astean. Jausten zen bigarren aldia zenez, konponketa lanak bukatu arte zinema emanaldiak bertan behera lagatzea erabaki zuten.

2000-2005

---

## Espainiako bi txapeldun, gazteak eta luizi handia

XXI.mende hasierako otsailetan kirolak eta gazteak izan ziren aldizkariko protagonistetako batzuk. 2002an, Edurne Unamuno Espainiako



Arrate Azkona Espainiako txapelduna.



Trenbideko luizia.

txapeldun izan zen eski txapelketan, Lleidan. Bi garaipen lortu zituen: jaitsieran bata eta erraldoian bestea. 2003ko otsailean, berriz, Arrate Azkona izan zen Espainiako txapeldun, jauzi hirukoitzeko junior mailan. 12,78 cm-ko saltoa egin zuen eta bere marka pertsonala hobetzeaz gain, Espainiako errekorretik 20 cm-ra geratu zen (martxoan egin zitzaion elkarrizketa).

Bestalde, gazteak ere izan ziren protagonista lehen bosturteko horretan. 2005ean hasi ziren lokal eske. Ez zegoen gaztelekurik. Ludotekako garaia bukatuta, Gazteterako gazteegi ikusten zuten euren burua eta liburutegian, frontoian edo Eibarko zinean egoten ziren. 2007an zabaldu zen lehenengo gaztetzokoa.

Azkenik, bestelakoan artean, 2002ko otsailean lur-jausia izan zen Ezozibidetik Loralderainoko trenbide zatiko obretan.

2006-2011

## Obrak kiroldegan, futbol-zelaian, Sacian...

Obra handiak egin ziren 2006-2011ko bosturtekoan. 2006ko otsailean Ezozibidean jolas-parkea eraikitzen hasi ziren, 123.243 euroko aurrekontuarekin eta kiroldegi gainean, berriz, futbito zelaia kentzeko lanak hasi zituzten, 0,5 milioi euroko aurrekontuarekin.

Obra handiak izan ziren Urkuluko urak Eibarrera eramatekoak ere. Zubi Nagusia-Errabal-Atxuri-Errekalde zulatu zuten.

2007ko otsailean hasi ziren, berriz, Saciako etxebizitzak eraikitzen. 2009 hasierarako 34 babes ofizialeko etxebizitza eraikitzea zen helburua.

Eta 2009an, Sora Futbol Taldeak futbol zelaian berrikuntzak eskatu zituen, prentsurrekoak, elkarretaratzeak... eginez. Besteak beste, belar artifiziala ipintzea eta aldagelak berritzea eskatzen zuten. 2009ko



Futbol zelaia azalean.



Iñaki Ruizi egindako azken agurra.

aurrekontuan 800.000 euroko partida aurreikusi zen, baina aurrekontua ez zen onartu, EAJK, PSE-EEK eta PPK kontra bozkatu zutelako. 2010ean onartu ziren aurrekontuak, EAJren abstentzioari esker. Otsailean hasi ziren futbol zelaiko lanak.

2011-2016

## Bi heriotza mingarri

Bi heriotza nabarmendu ziren: 2012ko otsailaren 11n hil zen Iñaki Ruiz mendizalea. Soum de Leviste Pirinio frantseseko mendia igotzen ari zela, 200-300 metroko amildegitik jausi zen. Oso egoera larrian eraman zuten ospitalera eta bertan zendu zen. Samin handia eragin zuen gaztearen heriotzak. Agur hunkigarria egin zitzaion herrian otsailaren 14an.


Bestalde, Mbye Ndyeren heriotzaren harira, haren familiari laguntzeko batzordea eratu zen 2013ko otsailean. 14.000 euro batu zituen.

2016-2021

## Herriko web orriak

Aro digitala izan zen otsaileko azken bosturtekoa. 2016an

aurkeztu zuten Plaentxia.eus webgune berritua, webguneak 9 urte zituela. 2015eko abenduan, berriz, Soraluze.eus, Udal webgune berria sortu zuten (2016ko otsailean aurkeztu zen aldizkarian). 2016ko alean ezagutarazi zen Sorapedia.eus, Soraluzeren inguruko informazioa jaso, sailkatu eta erraz kontsultatzeko moduan aurkezteko. Bestalde, 2018tik aurrerako otsailetan albiste asko izan ziren. Estaziñoko parkea estreinatu zen; zianuroarekin ehunka arrain akabatu ziren ibaian eta Soraluze, mugituz! sortu zen. 2019an, berriz, autobus geltokiaren gaineko herri galdeketa egin zen eta Udalak eskuratu zuen SAParen jabetza.



Ehunka arrain hilda.

## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Aiur eta Eñaut Valderrey Acha**  
Urtarrilaren 26an 3 urte eta otsailaren 1ean 10 urte. Zorionak bikote!! Muxu haundi bat etxekoan partez!



**Oier eta Unax**  
Zorionak bikote!  
Otsailaren 21ean eta martxoaren 1ean, 11 eta 8 urte beteko dituzuelako. Patxo bat etxekoan partez!!



**Marta Ayora**  
Otsailaren 15ean pixkat zaharrago. Zorionaak txiki! Bizipozak badu izena. Etxekuen, katuen ta atunen partez mila kilo zorion.



**Markel Larrañaga Gallastegi**  
Otsailaren 18an 6 urte. Zorionak! Segi holako mutil jator ta formala izaten! Patxo haundi bat etxekoan partez, batez be Beñaten partez.



**Itxaso eta Izer**  
Zorionak!!!!  
Martxoaren 8an 39 urte eta martxoaren 3an 7 urte. Muxu asko etxekoan partez.



**Idoia Basauri Varela**  
Otsailaren 19an, urtetxo bat! Zorionak polit hori! Patxo haundi bat etxekuen partez.



**Ekain Arana Lobato**  
Urtarrilaren 21ean urte bat. Zorionak maitxia! Asko maite zaitugu! patxo haundi bat etxekuen partez



**Angel Gonzalez**  
Otsailaren 25ean 66 urte. Zorionak aitxitxa!!! asko maite zaitzugu!!! muxu pila etxekoan partez!!!



**Asier eta Eider**  
Martxoaren 24an 10 urte eta martxoaren 14an 41 urte. Zorionak familia eta lagun guztien partez!



**Mikel**  
Otsailaren 17an 10 urte. Zorionak familia guztiaren partez. Muxu handi bat. 10 urte mutil haundi!!



**David Peñalba**  
Otsailaren 19an 39 urte. la datorren urterako batenbatek zoriontzen naben... Egun ona pasaaa!!!

### ESKELAK

ESKELA	
	 <b>Jose Mari Gomez</b>
2021eko otsailaren 3an hil zen, 62 urte zituela.	
Familia ondoan duzula amaitu duzu zure bizitzako antxibiketaldia. Maite zaitugu eta beti izango zaitugu gogoan.	
Sendia.	



**ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04**  
edo [eskelak@pilpilean.eus](mailto:eskelak@pilpilean.eus)

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta [Plaentxia.eus](http://Plaentxia.eus) webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 € / Bazkideek 60 €
- ▶ Handia: 120 € / Bazkideek 96 €

**Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Sorraluzen.**

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Javier Santamaria Aranberri  
Benito Argarate Elorza  
Rosa Bouzas Delgado  
Margarita Uriarte Albizu  
Jose Mari Gomez Nuñez  
Pedro Martin Lafuente

**Jaiotakoak**

Mara Aldazabal Arvelo  
Izar Aizpuru Uribe

JAIOBERRIAK



**Izar Aizpuru Uribe**  
Otsailaren 7an jaio zen.

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbata eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarran 10  
Tel.: 943 75 13 99

**Etxabe Harategia**

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soratzeko baserietako produktuk
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxebarrieta 5  
Telefonoa: 943 75 23 79

**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure gureko hortz klinika, punta-punta teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema bertutatuaren erabilera dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZU  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera:  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00

**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitarlekoak, rasiak, pizzaak, gogorak...

Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 89

**KLB6**

Kalebarran 6  
943 67 76 28  
Makina eta ordenagailuak

BSB *Papa Juan* VERO MODA  
ISOLID *BRUNICH*  
NB *new balance*

*Jakinaraz plazaerria, bertatik bertara*

**Batzoki**

gureko necroa, ospitalekoak eta familia eta lagunen arteko bezeroak, kanta eta inbentari, enbargo bezeroak, bezeroak.

Donostia, 943 75 20 55

**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluz) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com

**Kontulan**  
aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta aitortpenak - Administrazio lanak  
Tratamendu burokratikoak - Lan-urteko aholkularitza  
Enpresen kontabilitate/auditazioak - Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorabea  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82

**Hortz klinika**

Erreal 1  
Tel.: 943 75 16 13

**Javier Alonso**  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.599

**27 urteko esperientzia**  
odontologia, protesiak, odontopediatria, ortodontia, implanteak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko orokorra (DQ):  
ekianerria, ortu eta telei.

**Katia Gurline**  
Ortodontologoa  
K.Z. 48.001.541

**IZAGUIRRE**  
Igeltzeritza

Eraklin berriak - Kalitateko emaitza  
Erreforma - Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia - 610 638 913 - 649 867 289

**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenetik ostiralera:  
08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Larunbata: 08:30-13:30  
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, gromak, pastilak, konbiskak...  
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** Supporting your projects

**aras**

**ALBISUA** S.L.

**laibi** ELECTRICIDAD

# GOKI

erreformak



## FATXADA BIRGAITZEAK

**S.A.T.E.**  
FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOEN BIRGAITZEA



## ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42